# MUNGIARRA

**URRIA** *OCTUBRE* **2023** ≈ *71. Zkia.*



# Udal talde barria Mungian

**PARTAIDETZA**
**Kirola nagusi, 2024ko egutegirako argazki lehiaketan**

**AURRETIK PERTSONAK**
**Mungia Lagunkoiaren ekintza plana**

**MUNGIA ERAIKITEN**
**Olalde Zubia barriztuta**

MUNGIA
UDALA

*www.mungia.eus*

# » Agurra



Lau urteko agintaldi barriari emon deutsagu hasikerea. Alderdi desbardinetako hamazazpi lagun aukeratu gaituzue, hurrengo lau urteotan Mungiaren eta mungiarren alde ahal dogun guztia egiteko. Batzuok gobernutik eta beste batzuok oposizinotik, mungiarrentzat gure esku dagoan guztia egiteko erronka barri hori hartzen dogu geure ganean.

Aldizkari honetan ohikoa danez, egiten gabilzanaren zati baten barri emon gura deutsuegu. Guretzat garrantzitsua da zuoi jakinaraztea Mungiako Udalak zer aurrerakuntza daukazan helburu gure udalerriarentzat.

Hurrengo lau urteotan, orain arte egindako bideari ekingo deutsagu, eta, bide horretatik, bete-betean segiduko dogu zerbitzuei eusten eta hobetzen, gardentasunaren alde egiten, geure nortasuna eta hizkuntzea jagoten, personetan pentsetan, mobikortasunaren alde lan egiten, alkarteakaz alkarlanean eta bardintasuna sustatzen. Geure auzoak bere ahaztu barik. Nahi-ta oso udalerri zabala garan, Mungiako erdigunea bezain garrantzitsuak dira bazter guzti-guztiak.

Zeregin asko diran arren, danon laguntzaz egin ahal izango doguz.

Ilusioz beteta gagoz.

Besarkada handi bat.

*Alaitz Erkoreka, Mungiako alkatea.*

Comenzamos un nuevo mandato de cuatro años. Diecisiete personas de diferentes partidos hemos sido elegidas para, en los próximos cuatro años, hacer todo lo posible por nuestro pueblo, por Mungia. Asumimos este nuevo reto, algunas personas desde el Gobierno y otras desde la oposición, de hacer todo lo que esté en nuestra mano para mejorar la calidad de vida de las y los mungiarras.

Como es habitual en esta revista, os damos cuenta de una parte de lo que estamos haciendo. Consideramos que es importante transmitiros los avances que tenemos como objetivo desde el Ayuntamiento para nuestro pueblo, Mungia.

En estos próximos cuatro años, mantendremos el rumbo adquirido, y, en esa línea, seguiremos manteniendo y mejorando los servicios, apostando por la transparencia, cuidando nuestra identidad y nuestra lengua, pensando en las personas, trabajando por la movilidad, colaborando con las asociaciones y fomentando la igualdad. Sin olvidarnos de nuestros barrios. Somos un municipio muy amplio, pero hasta el último rincón es tan importante como el centro neurálgico de Mungia.

Son muchos aspectos, pero podremos hacerlo con la ayuda de todas y todos.

Tenemos mucha ilusión.

Un fuerte abrazo.

*Alaitz Erkoreka, alcaldesa de Mungia.*

# » Alaitz Erkoreka Baraizarra, Mungiako alkatea



Bagilean, Alaitz Erkoreka Baraizarra mungiarrak alkate-kargua hartu eban, EAJ-PNVko 8 kideen eta PSE-EEko ordezkariaren babesa lortuta. Torrebillela Kultur Etxean egin zan ekitaldia jentez ganezka egon zan. Alkate barriak eskerrona eta konpromisoa adierazi eutsezan bizilagunei, Ager Izagirre bere lagun eta aurreko kargudunaren eskutik makilea hartu ostean: “zintzotasunez, erantzukizunez eta gardentasunez behar egiten segiduko dogu”.

Mungiarrak esan ebanez, “beste batzuek zabaldutako bidetik segiduko dot”, eta beste alderdiei luzatu eutsen eskua, “Mungiako herritarren onerako akordioak lortzeko”. Era berean, errejidore barriak ganeratu ebanez, legealdi honetako oinarri nagusiak “personak, aukerak, gurariak eta bizi-kalidadea izango dira, auzoak ahaztu barik, oso udalerri sakabanatua daukagu-eta. Izan bere, Mungiako eremu bakotxak merezidu dauan garrantzia eukiko dau, auzo guzti-guztiak kontuan hartuta”.

## Alaitz Erkoreka Baraizarra, alcaldesa de Mungia

Alaitz Erkoreka Baraizarra es la alcaldesa de Mungia con el apoyo de las y los 8 representantes de EAJ-PNV y la del PSE-EE. La nueva alcaldesa se dirigió con palabras de agradecimiento y mostrando su compromiso: “vamos a seguir trabajando con honestidad, responsabilidad y transparencia”. Además, “seguiré el camino que quienes me antecedieron abrieron” y tendió la mano a otros partidos “para alcanzar acuerdos por el bien de Mungia”. La primera edil añadió que las máximas de esta legislatura “serán las personas, sus oportunidades, sus aspiraciones y su calidad de vida, sin olvidar los barrios y que cada rincón de Mungia recibirá la importancia que merece, hasta el último barrio”.

# » Nueva organización interna en el Ayuntamiento de Mungia

La organización interna del Ayuntamiento para estos cuatro años ha sido aprobada en el pleno celebrado en junio. De esta manera, además del nombramiento de las y los representantes del Ayuntamiento de Mungia en entidades externas al Consistorio, también se determinó la organización de las áreas municipales para esta legislatura.

En ese sentido, la organización del equipo de gobierno mungiarra es la siguiente:

- Alaitz Erkoreka Baraizarra, Alcaldesa-Presidenta.
- Nagore Torre Ureta, Primera tenienta de alcaldesa e integrante de la Junta de Gobierno. Concejala responsable de las Áreas de Recursos Generales, Organización, Desarrollo Sostenible, Gobierno Abierto e Innovación, Proyectos Estratégicos, Turismo y Deportes.
- Leire Bilbao Altonaga, Segunda tenienta de alcaldesa e integrante de la Junta de Gobierno. Concejala responsable del Área Territorial.
- Bakarne Egia Larrauri, Tercera tenienta de alcaldesa e integrante de la Junta de Gobierno. Concejala responsable de las Áreas de Acción Social, Igualdad, Juventud, Educación, Promoción Económica y Empleo y Comunicación.
- Asier Areitio Ibarlucea, Cuarto teniente de alcaldesa e integrante de la Junta de Gobierno. Concejal responsable de las Áreas de Economía y Finanzas y Recursos Humanos.
- Idurre Urresti Pellejero, Quinta tenienta de alcaldesa e integrante de la Junta de Gobierno. Concejala responsable de las Áreas de Euskera y Cultura.
- Markel Dominguez Uriagereka, concejal responsable del Área de Obras y Servicios.
- Iñaki Zarraga Barandica, concejal responsable del Área de Barrios.
- Yoana Menchaca Sánchez, concejala responsable de las Áreas de Comercio y Hostelería, Formación para el Empleo y Transporte.



## Mungiako Udalaren barne-antolaketa barria

Bagilean egindako osoko bilkuran, legealdi barriko Udalaren barne-antolaketa onartu zan. Udaletik kanpoko erakundeetan egongo diran ordezkariak izendatu eta udal-arloak antolatzea bere erabagi zan bertan.

# » Hasi da Mungiharro 2024ko egutegirako argazki lehiaketea

## En marcha el concurso fotográfico para el calendario Mungiharro 2024

El plazo está abierto hasta el 22 de octubre.

Entre todas las personas que participen en la elección popular se sorteará una cesta de productos de Mungia valorada en 100 euros.

La fotografía ganadora será elegida por un jurado profesional e ilustrará la portada del calendario. Además, recibirá un bono de 300 euros para consumir en establecimientos de Mungia. El jurado seleccionará las imágenes finalistas, que serán expuestas para la elección popular.




Mungiako Udalak Mungiharro 2024ko egutegirako argazki lehiaketea jarri dau abian. Bertan parte hartzeko epea urriaren 22ra arte egongo da zabalik.

2024an, gure herria eta kirola izango dira protagonista Mungiharro egutegian. Argazkietan Mungia eta kirola agertu beharko dira. Irudiek originalak eta lehiaketearen gaiaren adierazgarri izan beharko dabe. Lehiaketea 16 urtetik gorako guztientzat dago zabalik, eta adinbakoek legezko ordezkariaren berariazko baimen idatzia aurkeztu beharko dabe.

Aurten, epaimahai profesional batek aukeratuko dau argazki irabazlea, eta egutegiaren azala jantziko dau. Egileari 300 euroko bonua emongo jako Mungiako establezimenduetan erabilteko.

Epaimahaiak finalera igaroko diran argazkiak aukeratuko dauz, eta jentaurrean jarriko dira, mungiarrek aukeratu daiezan. Herritarrek (Mungian erroldatuta dagozan 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dabe) euren argazki gustukoenak aukeratu ahal izango dabez erakusketa-gunean bertan edo www.mungia.eus webgunearen bidez. Boto gehien jasoten daben 12 argazkiak agertuko dira Mungiharro 2024ko egutegiko orrietan.

Mungiako produktuen 100 euroko saskia zozkatuko da aukeraketa-prozesuan parte hartzen daben herritar guztien artean.

### Informazinoa:

**mungiharro.egutegia@gmail.com**
**Facebook/ mungiarron.egutegia**
**Instagram/ mungiarronegutegia**

# » Mungia avanza en la aprobación de su nuevo PGOU

El 24 de febrero se acordó la exposición pública del Avance y el documento inicial estratégico del PGOU durante 2 meses hasta el pasado 9 de mayo. Este documento también se envió a los Ayuntamientos colindantes.

La presentación del Avance y del documento estratégico inicial se realizó en Olalde Aretoa el 2 de marzo. Durante la exposición pública y dentro del proceso participativo en marzo se celebraron dos talleres de participación ciudadana en Olalde Aretoa. Además, la ciudadanía ha presentado sugerencias y alternativas en dicho periodo.

El Ayuntamiento presentó la solicitud de alcance de la evaluación ambiental estratégica al órgano ambiental del Gobierno Vasco, junto con el documento inicial Estratégico y el Avance, respondiendo el Gobierno Vasco el 27 de julio, enviando el documento de alcance necesario para seguir con la tramitación.

El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal se reunió en marzo para informar el Avance. Además, la Comisión de Evaluación de Impacto Lingüístico se reunió en abril, para redactar el documento de alcance correspondiente al Avance.

El siguiente paso es adoptar por el Ayuntamiento los criterios y objetivos que servirán de base para redactar el siguiente documento, que constituirá el Plan general de Ordenación Urbana de Mungia.

## Mungiak aurrera egiten dau bertoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean

Udalak hurrengo emongo dauen pausua Mungiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren dokumentu barria idazteko orduan oinarrian hartuko diran erizpideak eta helburuak zehaztea da.

# » Mungia cuenta con el mayor presupuesto de los últimos años, con 25,6 millones de euros



## Mungiako Udalak 25,6 milioi euroko aurrrekontua dauka

Udalak osoko bilkuran onartu ebazan 2023ko aurrekontuak, 25,6 milioi eurokoak, EAJ-PNVren eta PSEren aldeko botoari esker. EH Bilduk, Elkarrekin Podemosek eta Cívica Monte Berriaga Alderdiak, barriz, kontrako botoa emon eben. Holan, bada, Mungiak inoizkorik aurrekontu handiena dauka aurten, igoerea % 7,32koa izan dalako igazkoaren aldean.

Aurrekontu honek mungiarrak daukaz ardatz, eta bere helburua lan egiten segidutea da, Mungia bera biziteko, lan egiteko eta bisitetako udalerri erakargarriagoa izan daiten.

El Ayuntamiento de Mungia aprobó en sesión plenaria los presupuestos para 2023, que ascienden a 25,6 millones, con los votos a favor de EAJ-PNV y PSE-EE, y los votos en contra de EH Bildu, Elkarrekin Podemos y Partido Cívica Monte Berriaga. De esta manera, se aprobó el presupuesto más elevadoww hasta la fecha para Mungia, con un incremento del 7,32% respecto al año pasado.

En ese sentido, el documento se basa en las previsiones de ingresos: el 60% de los ingresos corresponde a la aportación proveniente de otras instituciones (15.346.651,66 euros), el 37% a tasas e impuestos de la ciudadanía (9.471.500 euros) y el 3% a otros ingresos como los patrimoniales (770.446,21 euros). Lo más destacado de este apartado son los fondos de Udalkutxa, que suponen el 53% de los ingresos totales y la subida en la recaudación del ICIO (Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras), ya que se prevé que la recaudación por este impuesto continúe la misma tendencia del pasado año.

En cuanto a las partidas de gastos, cabe destacar que la capacidad de inversión de Mungia para 2023 es muy significativa, ya que se han destinado más de 2,5 millones de euros para seguir llevando a cabo diversos proyectos que tienen como fin la mejora de Mungia. En este sentido, el 46,16% corresponde a los gastos diarios del Ayuntamiento como limpieza viaria, alumbrado público, servicios deportivos, culturales, servicios sociales y de promoción económica, etc. (11.812.262,04 euros); el 33,14% se destina a los gastos de personal (8.480.920,94 euros); el 9,98% se destina a las ayudas y subvenciones para la ciudadanía y asociaciones locales, además de las aportaciones a Behargintza y a la Mancomunidad de Servicios Sociales (2.552.966,65 euros); tipo de gastos como comisiones bancarias, finanzas activas, etc. (61.000 euros).

| ARLOAK | KOPURUA 2023 | KOPURUA 2022 |
|---|---|---|
| ALKATETZA | **1.125.771,28** | 1.024.000,00 |
| BALIABIDE OROKORRAK | **9.933.883,32** | 8.769.813,93 |
| OGASUNA | **518.943,79** | 538.823,79 |
| KULTURA ETA EUSKERA | **1.405.178,06** | 1.269.724,81 |
| HIRIGINTZA | **9.320.457,42** | 9.388.359,28 |
| GIZARTE EKINTZA | **1.166.590,00** | 1.143.940,00 |
| KIROLA | **1.577.674,00** | 1.550.630,00 |
| SUSTAPEN EKONOMIKOA | **540.100,00** | 158.169,35 |
| **GUZTIRA** | **25.588.597,87** | 23.843.461,16 |

# » 2023rako Enplegu Plana

2023rako Tokiko Enplegu Planaren barruan, Mungian erroldatutako 12 lanbako sei hilabetez kontratetako zortzi ekimen hasi dauz Udalak. Kontratazino horreen bidez, honako arlo honeetako hainbat proiektu landuko dira: ingurumena, segurtasuna, tokiko administrazino-kudeaketearen hobekuntzea, tokiko eremu publikoak eta enpresen lehiakortasuna. Proiektu horreei esker, Udalak lan-merkaduan sartzen lagunduko deutse herriko lanbakoei.

Udalak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta 2023rako Tokiko Ekintzen Programearen laguntza euki dau programa honetarako. Era berean, Mungiako enplegu eta tokiko garapenerako agentziaren (Mungialdeko Behargintza) laguntza teknikoa bere euki dau.




Enplegua sustatzeko Tokiko Ekintzetarako Laguntza-programearen esparruan (2023-2024), Mungiako Udalak 2023ko abenduan egingo dauz ekimen honetarako hautaketa-prozesuak eta kontratazinoak. Parte-hartzaileek udalerrian erroldatuta eta enplegu-zerbitzu publikoetan lanbako moduan inskribiduta egon beharko dabe.

Dentro del Plan de Empleo Local 2023, el Ayuntamiento de Mungia pone en marcha ocho iniciativas de mejora municipal, que conllevará la contratación durante seis meses de 12 personas desempleadas, empadronadas en el municipio. Los proyectos que se realizarán abarcarán desde el ámbito del medio ambiente, el de la seguridad, mejora en la gestión administrativa local, de espacios público locales, hasta el campo de la competitividad empresarial. Gracias a este proyecto, el Consistorio facilitará el acceso al mercado laboral de personas desempleadas del municipio.

Para poner en marcha este proyecto, el Ayuntamiento se va a apoyar en Lanbide y en su programa de Acciones Locales 2023. A su vez, contará con el apoyo técnico de Mungialdeko Behargintza.

# » 2023ko Mungilan

Zemendiaren 6tik 10era, “2023 Mungilan” proeiktuari ekingo jako. Hona hemen enpleguaren aste honen helburuak: lan-merkadua hurbiltzea enpresek eskainitako topaketa eta jardunaldi irekien bidez, enplegu-eskatzaileei aholkularitzea emotea eta sinergiak sortzea ekintzaileentzako topaketen bidez.

Agendea ez dago oindino guztiz zarratuta, baina, aurreko edizinoetan lez, helburua hau da: eragile sozioekonomikoen, enpresen, ekintzaileen eta orientazino bila dabilzanen arteko topagunea sortzea, alkar ezagutu daien eta, era berean, gure inguruko eta parajeko baliabideak zeintzuk diran jakin daien.




## Mungilan 2023

Del 6 al 10 de noviembre se celebrará la Semana del Empleo “Mugilan 2023”. Los objetivos son acercar el mercado laboral a través de encuentros y jornadas abiertas ofrecidas por empresas, asesorar a demandantes de empleo y generar sinergias a través de encuentros para personas emprendedoras.

# » Gure enpresakaz mundura

Mungialdeko Behargintzak (Mungiako Udaleko Garapen Agentzia) "2023ko Alkarregaz Mundura" ekimena jarri dau abian, Bizkaiko beste 4 garapen-agentziagaz alkarlanean, eta Garapen (Garapen Agentzien Euskal Alkartea laguntzarekin); ekimen horren helburua inguruko ETE-ei nazinoartean ezarten eta merkadu barrietan sartzen laguntzea da, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza dauka.

Aurtengo edizino honetan bere, zazpigarren urtez jarraian, Mungialdeko Behargintzak eta Bizkaiko Garapen Agentziak misino komertzial zuzenak eta alderantzizkoak antolatu dabez hainbat herrialdetara begira: Mexiko, Kolonbia, Txile..., besteak beste.

Misino horreetan, Mungiako 25 enpresak baino gehiagok hartu dabe parte.

Aurtengo maiatzean, gure herriko hiru enpresa Mexikoko Nuevo Leon estaduan egon dira; eta beste enpresa bat, Frantziako Akitania Barrian. Bisitaldi horreetan enpresek euren banakako agendea euki dabe, merkataritzako hartu-emonak ezarteko edo zabaldu ahal izateko.

### Internacionalizando nuestras empresas

Mungialdeko Behargintza, con el apoyo económico de la Diputación Foral de Bizkaia, en colaboración con 4 agencias de desarrollo de Bizkaia, y coordinada por Garapen (Asociación Vasca de Agencias de Desarrollo), ha puesto en marcha la iniciativa "Elkarrekin Mundura 2023" para promover la internacionalización de las pymes de nuestra comarca y facilitar su acceso a nuevos mercados como son Chile, México, Colombia, etc. En esta iniciativa han participado más de 25 empresas de Mungia.

## » Belako industrialdeko enpresen direktorioa eguneratu da

2015ean, Belako industrialdeko enpresen eskaereari erantzuteko asmotan, Mungialdeko Behargintzak, Mungiako Udaleko Tokiko Garapenerako Agentziak, enpresen direktorioa jarri eban industrialdeko sarreran.

Urteak joan, urteak etorri, direktorio hori eguneratu egin da. 2023ko lehenengo seihilekoan, azken aldaketea egin da industrialdean kokatutako enpresakaz batera. Direktorio barria adostuta dagoanean, bertan sartzeko bide nagusian jarriko da ikusgai.

Hogeita hiru enpresaren datuak jarri dira egunean. Batzuetan, logoa ordeztu da; eta, beste batzuetan, kokapena. Horren ganera, Mungian finkatu diran enpresa barriak bere badagoz. Informazinoa eguneratu daben gehienak industriaren sektorekoak dira; eta, horren ostean, merkataritza handizkarikoak eta eraikuntzakoak.

# » Mungibonoren 3. deialdia

Bagilean, Mungibonoaren hirugarren kanpainea abiatu zan, herriko konsumoa sustatzeko beherapen-bonuak sortuz.

Kaleko negozioei laguntduteko konpromiso sendoagaz, Udalak 100.000 euroko aurrekontua bideratu eban "Mungia Indartzen" programara. Horretatik 79.000 euro Mungibonoa kanpainarako erabili ziran, eta 5 euroko 15.800 bonu atera zituan. Kanpainan parte hartzeko epea amaituta eta zerbitzuetako 84 saltoki eta negoziok bete ebezan programaren baldintzak; horretara, 188na bono banatu jakezan partaideei.

Gainerako 21.000 euroak Mungiako ostalaritza dinamizatzeko erabiliko dira.

Betiko moduan, bonuen kanpainea Mungiako Merkatari eta Ostalarien Alkarteagaz egindako bileren eta alkarlanaren emaitzea izan da.

En junio se puso en marcha la tercera campaña de Mungibono con la creación de bonos descuento para incentivar el consumo local.

Con el firme compromiso de apoyar los negocios en la calle, el Ayuntamiento destinó un presupuesto de 100.000 euros al programa "Mungia Indartzen". De ellos, 79.000 euros se destinaron a la campaña Mungibonoa, mediante la emisión de 15.800 bonos de 5 euros. Al finalizar el plazo de adhesión 84 comercios y negocios del área de servicios cumplieron con los requisitos del programa y se repartieron 188 bonos para cada participante.

Los 21.000 euros restantes se destinarán a dinamizar la hostelería local.

Como siempre, la campaña ha sido fruto de reuniones y colaboración con la "Asociación de Comerciantes y Hosteleros de Mungia".

# » El Ayuntamiento implanta un protocolo interno de prevención del acoso sexual

El Ayuntamiento de Mungia puso en vigor este verano el protocolo interno de prevención y actuación frente al acoso sexual y por razón de sexo. Este protocolo responde a la necesidad de prevenir, sensibilizar y, en su caso, atajar con todas las garantías para ambas partes, estas formas de violencia y discriminación en el ámbito laboral.

Este documento es el resultado de meses de trabajo conjunto con el personal (laboral y político). El objetivo primordial es establecer un canal confidencial, rápido y accesible para gestionar las quejas o denuncias, primeramente, a través de un procedimiento informal y, si fuera necesario, a través de un canal formal. Su ámbito de aplicación no solo es el personal de la administración sino también la ciudadanía, pues ambas partes pueden sufrir acoso o ejercerlo. Por ello, el protocolo se aplicará a toda persona que preste servicios para el Ayuntamiento de Mungia, incluidas quienes tengan responsabilidad política, personal de contratas y de subcontratas, o siempre que estas conductas se den en las instalaciones municipales o donde el mismo preste servicio.

Con el objetivo de respetar y tratar a las personas con dignidad, y evitando cualquier comportamiento o actitud que pueda intimidar, discriminar u ofender, se establece este procedimiento que, esperamos nos ayude a resolver situaciones de conflicto por acoso sexual y por razón de sexo.




Mungiako Udalak bere erakundean sexu-jazarpena eta sexuagaitiko jazarpena sorrarazo leiken ezelako jarrerarik ez onartzeko konpromisoa hartu dau.

Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzinorako eta jarduketarako barne protokoloa aurtengo udatik aurrera dago indarrean Udalean.

Protokolo horrek, hain zuzen bere, honako beharrizan honi erantzuteko helburua dauka: lan-eremuan era horretako indarkeriak eta bereizkeriak prebenidutea, horreen inguruan sensibilizetea eta, halan bajagoko, alde bientzako berme guztiakaz etetea.

# » Gurasoen Eskolea: seme-alabak hezteko laguntzinoa




Udalak amaierea emon deutso Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunidadeko Adikzinoen Prebentzinorako Zerbitzuaren laguntzaz familiei heziketa-prozesuan laguntzea helburu daukan Gurasoen Eskolearen seigarren edizinoari. Familientzat dago antolatuta, eta umezaroan zein nerabezaroan aditua dan psikologoak emon dau. Joan dan zemendian hasi eta maiatzean amaitu zan.

Gurasoei heziketa-lanetan laguntzea dauka helburu, eta, batzuetan, zeregin hori erronka handia izan leiteke familia askorentzat, sarritan arazo zehatzetarako itaunak eta zalantzak sortzen jakez-eta.

Horregaitik, jakintzarako, alkartrukerako, ekarpenerako eta garapenerako gune hau eskaintzen segiduteko beharrizana ikusi zan, bertan zalantzak argitu eta seme-alaben heziketeagaz lotutako kezkak partekatzeko erea dagoalako.

Hona hemen Gurasoen Eskolearen helburuak:

- » Jarraibide argiak emotea erraz ulertzeko moduko hizkuntzan.
- » Familien heziketa-lanetan, gidaria eta orientatzailea izatea.
- » Umeen heziketan ohikoak diran zalantzak eta itaunak argitzea.
- » Profesional adituen jakintzak behar dauzan edonoren esku jartea.

Modulu bi eskaini dira. 10na saio euki dabez, eta seme-alaben edadearen arabera antolatu dira: lehenengoa, 3 - 6 urteko seme-alaben familientzat; eta bigarrena, 12 - 16 urteko nerabeak daukiezan familientzat.

Talde bietan, Mungiako eta eskualdeko 18 familiak parte hartu dabe, eta euren eretxia oso ona izan da.

Halanda ze, 2023-2024ko ikasturteari begira, Gurasoen Eskola barria antolatuko da, eta hainbat barrikuntza egingo dira bertan.

El Ayuntamiento, con la colaboración del Servicio de Prevención de Adicciones de la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales, ha finalizado la sexta edición de la Escuela de Madres y Padres, dirigida a las familias, que dio comienzo en noviembre y ha terminado el pasado mayo.

Han participado 18 familias de Mungia y de municipios de la comarca. La valoración de las mismas ha sido muy positiva.

En el curso 2023-2024, se organizará una nueva Escuela de Madres y Padres con novedades.

# » 2023ko AMAtxu Saria

Urtero lez, Mungiako Udalean eta herrian, maiatzeko lehenengo domekan antolatzen dogu AMAtxu Saria. Era bateko eta besteko personek, taldeek, alkarteek edo kausek borondatez eta modu solidarioan egiten daben lanagaitik emoten dan saria da.

Aurten, Mungiako harrera-familiei emon jake saria. Bizkaiko Foru Aldundiak umeen harrerarako programea kudeatzen dau eta aurten 25 urte bete dauz. Sari honen bidez, esker ona erakutsi jake bertan parte hartzen daben familiei, altruismoaren, justizia sozialaren eta konpromiso handiaren erakusgarri diralako.

Ume horreek arrazoi desbardinakaitik gurasoakaz egon ezin diran umeak dira, eta, harrera-familiei esker, familia-ingurune normalizau batean hazteko erea daukie. Halanda ze, etorkizun hobea eta zoriontsuagoa euki leikie.

Holan, bada, familia horreek egin daben lan gatxa eta izugarria balorau gura izan da eta, aldi berean, programa hori zabaldu, une honetan familia barrien premina handia dagoalako.

Aurtengo ekitaldia maiatzaren 7an egin zan, Landesa plazan, AMAtxuren irudiaren inguruan.



Cada año, el primer domingo de mayo celebramos el Premio AMAtxu. Este se entrega como reconocimiento a la entrega voluntaria y solidaria que realizan personas, grupos, asociaciones o causas de distinta índole.

Este año se ha reconocido a las familias de Mungia que han participado en la acogida de niñas y niños, poniendo, a su vez, en valor el programa que gestiona la Diputación, el cual cumple 25 años, por ser un ejemplo de altruismo, justicia social y gran compromiso.

Se ha querido reseñar la enorme labor que han realizado estas familias y, al mismo tiempo, dar difusión a este programa, ya que en este momento hay una importante necesidad de nuevas familias.

El acto de este año tuvo lugar el 7 de mayo junto a la escultura de la AMAtxu.

# » Mungia Lagunkoia programaren ekintza plana

*Mungia Lagunkoia* es un programa que se inició en el año 2018 con el fin de realizar un diagnóstico de nuestro municipio que sirviera de base para proponer una serie de acciones con el fin de lograr un pueblo más amable, más accesible y más seguro para todas las personas que vivimos en Mungia, prestando especial atención a aquellas de mayor edad.

Dicho análisis se ha basado en la participación activa de la ciudadanía, y especialmente del equipo motor, formado por 8 personas mayores de 60 años, quienes, de forma incansable y desinteresada, han trabajado de forma intensa en todo el proceso de realización del análisis y la posterior redacción del Plan de Acción.

Para la elaboración del diagnóstico se realizaron encuestas en el municipio, así como 7 grupos focales para tratar diversos temas, además de 2 encuentros ciudadanos. Todo ello ha servido para la confección del Plan de Acción que recoge más de 60 actuaciones a realizar en los próximos cuatro años y en distintos ámbitos: espacios y edificios públicos, zonas de paseo y al aire libre, seguridad ciudadana, cultura, euskera, deporte, comunicación, comercio, servicios sociales, igualdad y salud.



Mungia Lagunkoia Programea 2018an hasi zan, gure udalerriaren diagnostikoa egiteko eta, horren arabera, hainbat ekintza proponiduteko.

Azterketa hori herritarren eta, batez bere, talde eragilearen partaidetza aktiboan oinarritu da. 60 urtetik gorako 8 lagunek osotu dabe taldea, eta, modu nekaezinean eta ezelako interes partikular barik, lan ederra garatu dabe azterketea egiteko eta Ekintza Plana idazteko prozesu guztian.

Diagnostikoa egiteko orduan, alde batetik, inkestak egin ziran, eta, bestetik, 7 xede-talde eratu ziran, hainbat gai jorratzeko. Horrezaz ganera, herritarren topaketa bi bere egin ziran. Hori guztia Ekintza Plana egiteko erabili da. Planean, 61 jarduera azaltzen dira, eta datozan lau urteetan egingo dira hainbat esparrutan: eremu eta eraikin publikoak, pasealekuak eta aire zabaleko eremuak, herritarren segurtasuna, kulturea, euskerea, kirola, komunikazinoa, merkataritzea, gizarte-zerbitzuak, bardintasuna eta osasuna.

# » Gure edadekoek telefono mugikorra erabilteko ikastaroa egin dabe

Edadeko askok sakeleko telefonoa daukie, mugikorra, baina askok ez dakie eskaintzen dauzan aukera guztiak erabilten. Hori dala eta, oinarrizko eta doako prestakuntza-ikastaroa antolatu da gure edadekoentzat, sakeleko telefonoaren bidez komunikazinorako, kudeaketarako zein aisialdirako tresna digitalak erabili daiezan, euren inklusino digitala hobetu daiten, euren egunerokoa errazagoa izan daiten eta gizartean betebetean parte hartu daien.

Hauxe da landutakoa: eguneroko bizitzarako aplikazino erabilgarriak deskargetea, WhatsApp bidez mezuak bialtzea, albisteak irakurtea, Internet bidez mediku-hitzorduak eskatzea edo lagunakaz edo etxekoakaz bideodeiak egitea.

Ikastaro hau 10 ordukoa izan da, joan dan bagilean egin zan eta 16 lagunek parte hartu eben bertan. Datozan hilabeteetan ikastaro barriak eskainiko dira eta bere momentuan informazioa emango da.



Hay personas mayores que tienen un teléfono móvil y no conocen las posibilidades que ofrece, por ejemplo, descargar aplicaciones, enviar un mensaje por WhatsApp, leer noticias, pedir una cita médica por internet o hacer videollamadas.

Con el fin de reducir esta brecha digital, se ha organizado un curso básico y gratuito para personas mayores y así mejorar su inclusión digital, facilitándoles su día a día y promoviendo su participación activa.

A este curso de 10 horas, han acudido 16 personas en el mes de junio. Próximamente se ofrecerán nuevos cursos de los que se informará en su momento.

# » Olaldeko zubia barritu da

## Finalizadas las obras de renovación del puente de Olalde

La nueva infraestructura ya está disponible para su uso. El Ayuntamiento ha destinado un total de 294.391,46 euros (IVA incluido).

Tras casi dos años cerrado, luce un aspecto renovado y seguro. El Ayuntamiento de Mungia encargó a una ingeniería especializada un informe para conocer el estado del puente. La conclusión fue que era recomendable cerrarlo al público, y así se hizo.

Después el Ayuntamiento abrió el proceso de licitación para la contratación de las obras, que quedó desierto, por lo que volvió a licitar. Así, en enero de 2023, se adjudicaron las obras.

En la primera fase se retiraron las instalaciones situadas bajo el puente e Iberdrola instaló de manera provisional una red aérea para seguir dando servicio a la zona de Olalde Beresia.

Finalmente, se procedió a la retirada del puente y la instalación del nuevo. De modo que la nueva pasarela, cuya fabricación se ha realizado en Austria, está instalada y habilitada para su uso por parte de la ciudadanía.



Olaldeko zubia barritzeko lanak amaitu dira. Halanda ze, azpiegitura barria daukagu mungiarrok erabilteko moduan. Udalak 294.391,46 euro (BEZa barne) bideratu dauz lan hori egiteko.

Ia urte bian zarratuta egon ostean, Olaldeko zubiak itxura barria dauka, baina, batez bere, segurua. 2021ean, Mungiako Udalak egituretan espezializautako ingeniaritza-enpresa bati eskatu eutsan Olaldeko zubiaren egoerea zein zan jakiteko txostena egiteko. Bertan adierazotakoaren arabera, gomendagarria zan zarratzea; horri jarraituta, eta udalak galarazo egin eban handik igarotea.

2022ko udan, Mungiako Udalak lehenengo lizitazino-prozedurea zabaldu eban konponketarako eta aldaketarako kontratua egiteko. Prozedura hori, barriz, hutsik geratu zanez, bigarren prozedurea edegi eban; eta 2023ko urtarrilean, zubia konpontzeko eta aldatzeko lanak Construcciones Gabrimol 2000 enpreseari esleitu jakozan.

Epealdi horretan, URAren (Uraren Euskal Agentzia) baimena lortzeko beharrezko izapideak ezeze, aldi baterako urtenbidea bere topau zan ibaia zeharkatzen daben zerbitzuetarako, zubiaren taulearen beheko aldetik ainguratuta.

### Jarduketearen faseak

Obrearen lehenengo fasean, zubiaren azpiko instalazinoak kendu ziran. Horretarako, Iberdrolak aideko sarea instalau eban behin-behinean, ibaiaren ibilgua saihesteko eta Olalde Beresiko guneari zerbitzua emoten segiduteko.

Lan hori amaitu eta gero, zubia kendu eta barria instalau zan. Pasabide barria Austrian egin da. Instalatu eta herritarrek erabilteko prest dago.

# » Mungia invierte más de 350.000 euros en zonas de ocio y parques infantiles



*Infografía Landetxo kalea*

Para que las personas mayores y las más pequeñas disfruten de espacios lúdicos adaptados a sus necesidades, el Ayuntamiento está procediendo a renovar, cubrir y mejorar las zonas de ocio y parques infantiles. Para estas actuaciones, el Consistorio destinará más de 350.000 euros.

En ese sentido, se ha instalado una nueva zona de juegos en la calle Aita Arrupe y una de aparatos biosaludables para personas mayores en la Calle Baiona.

La reforma de la zona de juegos infantiles de Palado ya está en marcha. Se quitarán los elementos actuales, y se creará un nuevo espacio de juego natural e inclusivo, con personalidad propia. La nueva zona estará formada por juegos de equilibrio, toboganes, casetas, columpios, camas elásticas y otros elementos naturales.

Por su parte, la obra de renovación y cubrición de los juegos infantiles de la calle Landetxo ya ha arrancado, y se renovarán y sustituirán los juegos y el suelo. Para ello, se ha desmontado lo existente y sustituido por aparatos lúdicos más nuevos e inclusivos. Con ánimo de mejorar la seguridad, también se ha cambiado el suelo técnico modular. Cabe destacar que el nuevo espacio estará tapado con tres cubiertas arbóreas que harán de tejado.

Lo que se ha retirado de ambos parques y se encuentra en buen estado, se ha utilizado para completar otras zonas de juego infantil como las de Berteiz, Usandizaga y Garabilla Margolaria. En esta última, se ha reutilizado el carrusel de Atxurizubi, el columpio inoxidable, un muelle de Landetxo y parte del suelo técnico. En Usandizaga, se ha colocado un muelle doble y uno simple. En el parque infantil de Berteiz, se ha instalado otro muelle doble y una casita con tobogán, además de ampliar la zona de seguridad con suelo técnico modular.

El desmontaje, retirada, transporte a vertedero y reciclaje del material, junto con la reinstalación de los elementos aprovechables, ha supuesto una inversión de 14.274,37 euros.

## Intervenciones en parques infantiles para dotarlos de juegos inclusivos

Además, se han realizado intervenciones para dotar de juegos inclusivos a otros espacios:

